



KOMUNIKATUA

Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak Eusko Jaurlaritzak Hala Bedi Irratiari ezarritako 'Mozal Legea'k aplikatzen duen zigorra mantentzearen erabakia deitoratu eta salatzen dute

Bilbo, 2018ko apirilak 18.- Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak Eusko Jaurlaritzak Hala Bedi Irratiko kazetari bati ezarritako 'Mozal Legea'k aplikatzen duen zigorra mantentzearen erabakia deitoratu eta salatzen dute. Gainera, komunikabide honek hartutako erabakia babesten dute zeinak euskal-exekutiboa auzitara eramango duten lege hau lan-informatiboaren garapena zigortzeko erabiltzeagatik.

Hala Bedi Irratitik gaur adierazi dutenez, ia urte baten ondoren, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Hala Bediko kazetariaren aurkako zigorra baieztatu egin du, zeini Hiritar-segurtasun Legea aplikatu zioten Errekaleor auzoan (Gasteiz) grabatutako poliziaren esku-hartze baten ondoren.

Irrati honetatik gogorarazten dute eta aurkeztutako alegazio guztiak errefusatuak balira, 'Mozal Legak' zigortutako lehen euskal-kazetaria izango litzatekeela.

KEE eta EKEtik, berriro ere, gogoratzen dugu 'Mozal Legea' informazioaren eskubidearen aurkako eraso zuzena dela eta beraz, komunikabideetan lan egiten dugunon profesionalen lanaren kontra doa eta hau berehala kentzea eskatzen dugu.

Zigor honen jatorria maiatzaren 18a da. Egun horretan, Hala Bediko bi kazetari Iberdrolak -Ertzaintzaren laguntzaz- Errekaleorren burutu zuen argi-mozketaren inguruko estaldura egiten ari ziren. Irrati hau bertan gertatzen ari zenaren lekuko bakarra izan zen, beranduago heldu ziren komunikabidek ezin izan baitzuten auzora hurbildu Ertzaintzaren debekua zela eta.

Aipatu beharra dago, Ertzaintzak kazetari bat 'Mozal Legea'rekin zigortzen duen lehen aldia dela. Isuna 602 €koa da.